



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA
2016/02/05

Batzar Nagusiek, "tasa arrosak" emakumeengan dauen eraginari buruzko "azterlana" egitea eskatu deutsie Eusko Jaurlaritzari

Bizkaiko Batzar Nagusiek, aho batez, Eusko Jaurlaritzak "tasa arrosa" deritxonaren "existentziari, nondik norakoari eta eraginari" eta gain-kostu horrek Euskadiko merkaduan emakumeei zuzendutako produktuetan edo zerbitzuetan dauen "eraginari" buruzko txostena egitea erabagi dabe, Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako Batzordean.

"Tasa arrosa" deritxona, emakumeei zuzendutako hainbat produktutan edo zerbitzutan prezio altuagoa jartea da, itxuraz behintzat, kalidadea edo prestazinoak dirala eta prezio igoera hori justifiketan dauen errazoirik ez dagoan arren. Arauz besteko proposamena Bizkaiko Batzarretara ekarri dauen Podemos Bizkaia taldeko Elsa Pamparacuatro batzordekideak azaldu dauenez, tasa horrek oso egoera "iraingarria" sortzen dau emakumeentzat, eta "are larriagoa une honetan generoen artean dagoan soldata desberdintasuna kontuan izanda".

EAJ-PNV eta PSE taldeek batera aurkeztu daben zuzenketa-eske baten bitartez aldatu egin dan talde morearen ekimenak eskaerea egiten dau Eusko Jaurlaritzak txostena egin daian, Kontsumobide eta Emakunde erakundeakaz lankidetzan. Batzarretara ekarritako ekimenean Podemos Bizkaia taldeak aurreikusten dituan ekintzen artean, "sentsibilizaziorako eta tasa hori indarrean jarten ez daben saltokiak identifiketako" kanpaina dago, "saltoki horreetan tasa hori ez dala apliketan adierazoten daben eranskailuak jarritz", adibidez.

Kanpaina, azterlanaren "emaitzak ikusi ostean" egingo da, jeltzaleek eta sozialistek planteau daben eta proposamena aurkeztu dauen taldeak onartu dauen zuzenketa-eskeak jasoten dauenez. Jatorrizko ekimenean, Podemos Bizkaiak beste ekimen batzuk planteau ditu, baina azkenean baztertu egin dira. Ekimen horreen artean Emakunde "ez betete eta arau hauste posiblei buruzko errespenak eta txostenak egitea" edo erakunde publikoek horri buruzko "prebentzinozko neurriak" atoa hartzea egon dira, beste batzuen artean.

Pamparacuatrok adierazo dauenez, tasak "eragin negatiboa dauka andrazkoen poltsikoetan". Produktu eta zerbitzu batzuetan dauka eragina: "gorputzeko uleak kentzeko xaflatan, krematan, txanpuetan, sprayetan, lurrinetan, erropan edo boligrafo xumeetan", batzuetan egin dan gauza bakarra produktuan edo bildukinean kolorea aldatzea danean. Azalpen objektiborik egon barik, prezioak aldatu egiten dira bezeroa zein dan kontuan izanda: gizonezkoa edo emakumezkoa. Holan, adibide moduan, "ulea mozteko orduan aldea %100 eta %150 artekoa dala" esan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak esan dau egoerak emakumeen “oinarrizko eskubideetan” dauela eragina. Hori dala eta, erakunde publikoek “esku hartzea” eskatu dau, enpresek ez daitezcan emakumeen kontura “aberastu”, emakumeak ohituta dagozalako produktu edo zerbitzu beraren orde z gehiago ordaintzen.

Administrazioaren inplikazio hori beharrezkoa da “genero berdintasuna eta gizarte aurreratuagoa eta zuzenagoa bultzatzen laguntzeko”. Gogoratu dauenez, Frantziako Asanbladak, talde feminista batek eskatuta, bidea hasi dau European, prezio garestiako horren ondorioak neurtzeko azterlana egiteko eskatuz.

Batzarretako ganerako taldeak bat etorri dira Podemosekin, kostuan dagoan alde hori benetakoa dala esatean. EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek esan dabe Estatu Batuetan be badagozala gauza bera erakusten daben txostenak eta, hori dala eta, ondo ikusten dabe Eusko Jaurlaritzak tasa horren eraginari buruzko azterlana egitea, neurri zehatzak martxan jarri aurretik. Neurri horreek ez dira zertan erakundeen eremura mugatu behar.

Alexia Castelo sozialistak “herritarren kontzientziaren” garrantzia azpimarratu dau, batez be kontuan izaten badogu “emakumeak garala etxeetako erosketei buruzko erabagien %80 hartzen doguzanak”. “Bakotxaren eremutik” egin daitezkan ekintzak be badagoz, blogak dituen emakume aditu batzuek emoten dituen aholkuak, adibidez, artikulu jakin batzuk “gorputzeko uleak kentzeko xafiak edo usain-kengarriak” gizonetako sekzioetan erostea edo “marka zuriak” kontsumitzea, adibidez.

EH Bilduren eretziz “tasa arrosea”, “zapalkuntza patriarkal eremuan” oinarritutako gizartean emakumeek jasaten daben bazterkeriaren “beste adibide” bat da. David Lopategiren eretziz oso garrantzitsua da arlo horretan “sentsibilizazioa eta prestakuntzea” handitzea, eta ez dau baztertu prezio politika horreek apliketan dituen enpresei kontsumoaren aldetik “boikota” egitea. EH Bilduko batzordekideak “estatu mailako” tasa arrosea be aitatu dau, Gobernu zentralak emakumeen higieneko produktuei, “konpresei eta tanpoiei”, apliketan jaken BEZ zergea igon izana, adibidez.

BIZKAIKO GIZARTE ZERBITZUEN BERRANTOLAKUNTZEA

Beste alde batetik, Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako diputatu andrea Batzar Nagusietara joan da, EH Bilduk eskatuta, EAeko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan (2016-2019) ezarri diran konpromisoak zelan gauzatuko diran azaltzeko. “Zeintzuk dira 2016ko abendura bitartean emongo dozuezan urratsak Bizkaia mailako Gizarte Zerbitzuen Mapea gauzatzeari begira zure Sailari jagokozan arloetan?” galdetu deutso EH Bilduk aldaketa horreen eragina jasoten daben bi sailletako baten arduradunari.

Joan dan abenduan Eusko Jaurlaritzak EAeko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (2016-2019) onartu eban, eta horren barruan EAeko Gizarte Zerbitzuen Mapea dago, eta baita zerbitzu horreek gauzatzeko beharrezkoa dan Memoria Ekonomikoa be.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Laespadak gogoratu dauenez, horreen aplikazinarako mugea “2016ko abenduaren 25a da”.

Aldundiko arduradunak jakinarazo dauenez, une honetan foru plana, bere sailari jagokonean –gizarteratze eta bardintasun planak– Udalakaz “lankidetzan” aritzeko gunean sartu da, “zerbitzuak finketako” eta erakunde bakotxaren “eskumenak definitzeko”. EH Bilduk egindako erantzun-eskeei erantzunez, Laespadak esan dau bere sailak erabilten dauen “aurreikuspena” kontuan izanda, aurrekontu honeetan eginbeharrekoak egiteko “ez dala ekarpen gehigarri beharko. “Bagilean jakingo dogu, inbertsinorako beharrak eta konpromisoak definitzen diranean”, adierazo dau Oscar Seco Aldundiko Gizarteratze Zuzendariak.

Laespadak egiaztatu dauenez, Aldundiak bere eginbeharrekoa “bete egingo dau”. “Eskubide subjektiboak bermatuko doguz eta ez dogu inor itziko arretarik emon barik”, adierazo dau, eta horren ostean azaldu dauenez, hasitako prozesua baliagarria izango da baliabideak “egokitzeko” eta herritarrek gizarte zerbitzuen arloan dituen eskubideak “eraginkortasunez, efizientziaz eta kalidadeko estandarretan oinarrituta” beteteko.

Oposiziotik, EH Bilduk eta PPK “zalantzak” erakutsi ditue egutegia beteteari jagokonez. Josu Unanue koalizino abertzaleko bozeroaleak, Bizkaiak, Gipuzkoagaz edo Arabagaz alderatuta, gizarte zerbitzuen sarean darian atzerapena, eta aurtongo aurrekontuetan helburuak beteteko partidarik ez egotea aitatu ditu. “Guk ez doguz ikusten”. Zerbitzu horreen arteko gehienak Bilbon “zentralizauta” dagozala be kritikatu dau.

PP taldeko Eduardo Andresek salatu dauenez, Aldundiak “denporea euki dau” ekitaldi honetan aurrekontuetako partidak sartzeko, Autonomia erkidegoko dekretuaren zirriborroa “orain urtebetetik” euki dauelako bere eskuetan.

Foru taldea eusten daben taldeen–EAJ-PNV eta PSE-EE– eretxiz “denporea emon behar da” Bizkaiko gizarte zerbitzuen eredia definitzeko. “Oso haseran gagoz”, gogoratu dau Alexia Castelok. Foru Aldundia Udalakaz “lankidetzan aritzeko prozesuan” sartuta dago, eta prozesu hori “bide onetik doa”, esan dau Aitor Ibarra jeltzaleak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

05/02/2016

Juntas Generales pide al Gobierno vasco un "estudio" sobre el impacto de la "tasa rosa"

Las Juntas Generales de Bizkaia han acordado hoy, por unanimidad, en la comisión de Empleo, Inserción Social e Igualdad, que el Gobierno vasco elabore un informe sobre “la existencia, alcance e impacto” de la denominada "tasa rosa", así como sobre la "incidencia" en el mercado vasco de este sobrecoste en productos o servicios dirigido a las mujeres.

La llamada "tasa rosa" es un supuesto aumento del precio en algunos productos o servicios dirigidos a las consumidoras, sin una variación justificada por su calidad o prestaciones. Según ha explicado Elsa Pamparacuatro, apoderada del grupo Podemos Bizkaia que ha traído al Parlamento vizcaíno la proposición no de norma, esta tasa produce una situación “infame” para las mujeres que “se ve agravada por la desigualdad salarial existente" entre géneros.

La iniciativa de la formación morada, modificada a través de una enmienda conjunta de PNV y PSE-EE, insta al Ejecutivo vasco a que elabore este informe en colaboración con los organismos Kontsumobide y Emakunde. Entre las acciones previstas por Podemos Bizkaia, incluida en la iniciativa parlamentaria, se plantea la realización de una campaña de “sensibilización y visibilización” en los establecimientos comerciales “mediante la colocación de pegatinas” que adviertan de la no aplicación de esta tasa.

La campaña se llevará a cabo “en función de los resultados” del estudio, según se recoge en la enmienda de jeltzales y socialistas, aceptada por el grupo proponente. En la iniciativa original, Podemos planteaba otras iniciativas, finalmente desechadas, como que Emakunde realizara “dictámenes e informes sobre posibles incumplimientos e infracciones”, o como que las instituciones públicas adoptaran ya “medidas preventivas” al respecto.

Según Pamparacuatro, la tasa “repercute negativamente en los bolsillos de las mujeres”. Incide sobre el precio de productos y servicios como “cuchillas de afeitar, cremas, champús, sprays, perfumes, ropa o bolígrafos”, simplemente por un cambio de color en el producto o embalaje. Sin que exista una explicación objetiva, los precios varían también en servicios en función del cliente: mujer u hombre. Así, ha puesto como ejemplo el incremento "de entre un 100 y un 150% en cortes de pelo”.

La juntera de Podemos ha señalado que la situación "afecta a derechos fundamentales" de las mujeres. Por esta circunstancia, pide una "intervención" de las instituciones públicas para que las empresas “no hagan su agosto” con el género femenino, acostumbrado a pagar más por el mismo producto o servicio. Esta implicación de la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Administración es necesaria para “contribuir a impulsar una igualdad de género y una sociedad más avanzada y justa”. Ha recordado que la Asamblea francesa ha iniciado, a instancias de un grupo feminista, el camino en Europa con la petición de un estudio para medir las consecuencias de este sobreprecio.

Los demás grupos junteros han coincidido con Podemos en que la diferencia de coste es un hecho. Desde PNV y PSE-EE, han constatado también la existencia de informes en EE UU en este mismo sentido y, por ello, ven con buenos ojos que el Ejecutivo vasco realice un estudio previo sobre el impacto de dicha tasa antes de implantar medidas concretas que no tienen por qué circunscribirse únicamente al ámbito institucional.

La socialista Alexia Castelo ha destacado la importancia de la “concienciación ciudadana”, especialmente teniendo en cuenta que “las mujeres tomamos el 80% de las decisiones de compra de los hogares”. Hay acciones que se pueden hacer “desde el ámbito individual”, como las recomendaciones que hacen expertas blogueras para adquirir ciertos artículos como “cuchillas o desodorantes” en las secciones de hombres, o pasar a consumir “marca blanca”.

Para EH Bildu la “tasa rosa” es “otro ejemplo” de la discriminación que sufren las mujeres en una sociedad basada en un “modelo de opresión patriarcal”. Para David Lopategi es importante el “aumento de la sensibilización y formación” en esta materia, sin descartar el uso del “boicot” consumista a las empresas que aplican estas políticas de precios. El juntero de Bildu ha criticado, además, la aplicación de una tasa rosa “estatal” aplicada por el Gobierno central respecto a la subida del IVA a productos de higiene femenina como “compresas y tampones”.

REORDENACIÓN DE LOS SERVICIOS SOCIALES EN BIZKAIA

Por otra parte, la diputada de Empleo, Inserción Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha acudido a las Juntas Generales, a petición de EH Bildu, con el fin de explicar los compromisos establecidos en el Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV (2016-2019). “¿Qué pasos darán hasta diciembre de 2016 de cara a desarrollar el Mapa de Servicios Sociales de Bizkaia en los diferentes ámbitos de su Departamento?”, ha preguntado EH Bildu a la responsable de uno de los dos departamentos a los que afectan estos cambios.

En diciembre pasado, el Gobierno Vasco aprobó el Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV (2016-2019), en el que se incluye el Mapa de Servicios Sociales de la CAPV, así como la Memoria Económica necesaria para desarrollar estos servicios que, según ha recordado Laespada, tienen como horizonte de aplicación “el 25 de diciembre de 2016”.

La responsable foral ha informado de que, en estos momentos, el plan foral, en lo que concierne a su departamento –políticas de inclusión social e igualdad- se adentra en el



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

terreno de la “colaboración” con los ayuntamientos para “fijar servicios” y “definir las competencias” de cada institución. A preguntas de EH Bildu, Laespada ha señalado que la “previsión” que maneja su departamento es que “no se necesitará aportación complementaria” en los presentes presupuestos para cumplir con las obligaciones. “En junio, lo sabremos”, cuando se definan las necesidades y compromisos de inversión, ha apuntado el director foral de Inserción Social, Oscar Seco.

Laespada ha augurado que la Diputación “cumplirá”. “Garantizaremos los derechos subjetivos y no dejaremos a nadie sin atender”, ha señalado para, a continuación, explicar que el proceso iniciado servirá para “adecuar” los recursos y cumplir con los derechos ciudadanos en materia de servicios sociales, “de manera eficaz, eficiente y con estándares de calidad”.

Desde la oposición, tanto EH Bildu como el PP han mostrado “dudas” respecto a que el calendario se cumpla. El portavoz de la coalición abertzale, Josu Unanue, se ha referido al retraso de Bizkaia respecto a Gipuzkoa o Araba en la red de servicios sociales y a la inexistencia de partidas presupuestarias este año para cumplir con los objetivos. “Nosotros no las vemos”. También se ha quejado de la “centralización” en Bilbao de la mayoría de estos servicios.

Eduardo Andrés, del PP, ha denunciado que la Diputación “ha tenido tiempo” para incluir partidas presupuestarias en este ejercicio, ya que el borrador del decreto autonómico lo tenían “desde hace un año”.

Para las formaciones que sustentan al equipo foral – PNV y PSE-EE- hay que “dar tiempo” para definir el modelo de servicios sociales en Bizkaia. “Estamos muy al principio”, ha recordado Alexia Castelo. La Institución foral está inmersa en un “proceso de colaboración” con los ayuntamientos que va “por buen camino”, ha añadido el jeltzale Aitor Ibarra.